



ENEK

Euskadiko Nekazaritza eta Elikadura
Ekologikoaren Kontseilua
Consejo de Agricultura y Alimentación
Ecológica de Euskadi

**NE-ZIUR-PZ-01 Eranskia tarifak
Berrikustea 1**

Urteko kontrol eta ziurtapen zerbitzuen kostua

Indarrean: 2.009ko urtarriletik

Anboto kalea, 4
48340 Amorebieta-Etxano (Bizkaia)
Tel.: 902 540 165
e-mail: info@eneek.org
www.eneek.org



1. JUSTIFIKAZIOA

Europako Kontseiluaren 834/2007 (EEE) Erregelamenduak, produktu ekologikoen ekoizpen eta etiketatzeari buruzkoa denak, enpresek nekazaritza ekologikoaren aipamena erabili ahal izateko, ziurtapen-erakunde baimendu batek burutuko duen kontrol-sistema jasan beharko dutela dio, ekoizpen momentutik salmentarainoko tartean. Euskadiren kasuan, ENEEK da ziurtapen-erakundea.

Eusko Legebiltzarrak onartutako 10/2006 Legeak, abenduaren 29koa, Euskadiko Nekazaritza eta Elikadura Ekologikoari buruzkoa denak, ENEEKen finantziazioaren baliabideak zehazten ditu. Finantziazio iturri bat, kontseiluan izena emanda dauden operadoreek, 834/2007 (EEE) Erregelamenduak derrigortutako **kontrol-sisteman** egoteagatik ordaindu behar dutena da. Zerbitzu publikoa izanik kontrol gastuen zati bat baino ez da ordaintzen. Ordainketak izaera publikoko ondare-prestaziotzat hartzen dira.

Modu honetan, ENEEKek eginiko kontrol eta ziurtapen lanen zati bat ordaintzen da.

Kontrol eta ziurtapen zerbitzuak, ondorengo jarduerak barne hartzen ditu:

- Eskaera edota espedientearen berrikustea
- Ikuskatze bisita, joan-etorrien kostua barne
- Produktu, lur, ura eta bestelako matrizeen analisia egitea, ENEEK hala balioztatzen duenean.
- Dokumentazioa jasotzea eta bidaltzea
- Legediaren ez betetzeak antzematen direnean, aurkeztutako jarduera zuzentzaileen azterketa eta Ziurtapen Batzordearen ebaluaketa
- Ziurtagiriaren bidalketa, hala dagokionean eta etiketen aipameneren azterketa eta onarpena.

Legediaren ez adostasun bat zuzendu dela egiaztatzeko, ala produktu kutsatzaile baten izatea baztertzeko, egin beharreko **ikuskatze bisita edota ez ohiko analisiak, kostu gehigarria** dauka eta baita analisi kontraesankor bat burutzeak.

Tarifen zenbatekoak, **Kontseiluko batzarrean** urtero berrikusi eta onartzen dira.

Kontseiluak, **2009ko ekainak 2an** burutu zuen batzarrean, ondoren aurkeztu diren kontrol eta ziurtapen zenbatekoak onartu zituen.

2009ko urtarrilak 1etik aurrera emandako jardueri ezartzen dira ondorengo zenbatekoak:

2. EKOIZPEN LANEN KONTROLA

Nekazari, abeltzain edota bestelako nekazal ustiategien titularrek egindako ekoizpen lanen jarraipena. Ustiategian ekoizturiko produktuen ontziratzea eta lehen etiketatua ere ekoizpen lanetan sartzen dira.

Nekazal ustiategien urteko kontrol eta ziurtapen kostua honela kalkulatzen da:

$$60\text{€} + 40\text{€} \times \text{ustiategiaren tamaina}$$

Ustiategiaren tamaina, Nekazaritza Ekologikoan inskribaturiko azalera edota batez besteko abelburu kopuruaren arabera zehazten da.

Labore eta abere mota ezberdinak kontutan izateko, **taula 1**-ean jasotzen dira **orientazio produktibo** bakoitzarentzat **neurri unitateak**.

Ustiategian erregistratu gabeko edo **ekologikoak ez diren ekoizpen mota bereko landaketak** daudenean, kontrol gehigarriak egin behar izaten dira. Beraz, berdinak direnean, ekologikotik kanpo dauden lan unitateak ere kontutan hartzen dira. Gehienez lan unitate ekologikoaren besteko azalera hartzen da, handik gorakoak ez.

Kide bakoitzak daukan hektarea edota abelburu kopurua **urtero berrikusten da**, bietatik edozeinek eskatuta. Kontutan hartzen dira, azken eskaera, azken nekazal lursailen aitortpena edota abere errolda.

Abere kopurua zenbatzeko garaian, abere gazteek eta ekoizten ez dutenak, erdia kontatzen dute. Urteko batez besteko abelburu kopurua zehaztu behar da.

Erlezaintzan ere irizpide bera jarraitzen da. Nukleo berriek eta erlauntza ez produktiboek, erdia zenbatzen dute eta kopurua urteko batez bestekoa eginez hartzen da.

Abeltzainen kasuan, **larreak eta belardiak** etxerako badira ez dira lan unitateen kalkuluan kontutan hartzen, soilik abereak edota saltzeko izan daitezkeen belardiak.

Bilakaera edo konbertsioaren lehen urtean edo "0 Urtea", trantsizio urtea da. Lehen urte honetan dauden ekoizpen unitateengatik ez da ordaintzen.

Adibidea: Larre eta belarditan 20 ha dituen ustiategia, denak etxerako. Haragitarako 15 behi eta adineko zekor (txahal) eta 160 ardi:

Kalkulua: Ustiategiko larre eta belardiak etxerako dira beraz 20 ha ez dire kontutan hartzen.

$$60\text{€} + 40\text{€} \times (15 \text{ behi ta txahal} / 15^{(taula1)} + 160 \text{ ardi} / 80^{(taula1)}) = 180\text{€/urtea}$$

Taula 1. Unitatearen balioa ekoizpen motaren arabera *.

		Abelburuak	
BARAZKIAK (Baratza aire zabalean)	5.000 m ²	HEGAZTIAK arrautzarako eta okelarako oiloak, beste hegaztiak	1.670
BARAZKIAK NEGUTEGIAN	1.500 m ²	BEHIAK esnetarako	8
BARAZKIAK LANDAKETA ESTENTSIBOA	2,5 ha.	BESTE BEHI AZIENDA, behiak, txahalak, zezenak...	15
FRUTARBOLAK, MAHASTIAK, OLIBONDOAK	2,5 ha.	AHUNTZ AZIENDA	100
ALETARAKO ZEREALAK	20 ha.	UNTXI AZIENDA untxi amak bakarrik	130
JATEKO PATATA	6 ha.	ZALDI AZIENDA	40
HAZITARAKO PATATA	4 ha.	ARDI-AZIENDA	80
LEKALEAK	4 ha.	TXERRI-AZIENDA esne-txerrikumeak salbu	50
SALTZEKO HAZIAK ETA LANDAREAK**	1.400 m ²	ERLAZAINZA erlauntz kopurua	140
USAIN-SENDA BELARRAK TA ESPEZIAK	2 ha.	OREINAK	33
LABORANTZA INDUSTRIALA EKILORE, KOLTZA	20 ha.	BARRASKILO AZIENDA	1.800 m ² ekoizpen azalera
LABORANTZA INDUSTRIALA ERREMOLATXA	8 ha.		
SALTZEKO BAZKA LABORANTZAK, LEKADUNAK-PROTEAGINOSAK **	10 ha.		
SALTZEKO BEREZKO BELARDIA, BELAR SOROA*	20 ha.		
SALTZEKO MENDIKO LARREAK*	50 ha.		
LABORANTZARIK EZ, BASOLARREAK, SASTRAKETAKO ESPEZIAK	100 ha.		

* *Baliokidetasunak egiteko kontutan hartuta da 2001eko uztailaren 18ko den AGINDUA, Nekazaritza eta Arrantza sailburuarena, bertan finkatzen dira, Euskal Autonomia Erkidegoko nekazaritza-ustategiei dagokienez, eta 2001. urterako, laborantzen marjina gordinak eta Nekazaritzako Lan- Unitateak (NELU) zehazteko modulu objektiboak.*

** *Soilik salmentara bideratzen den bazka laborantzak hartu behar dira kontutan, ustategiko abereek kontsumitzen dutena ez da kontutan hartzen.*

3. ELABORAZIO EDO MANEIATZE LANEN KONTROLA

Produktuak iraurarazi, transformatu, elaboratu (abereen akabatzea eta txikitzea barne), ontziratu, etiketetan nekazaritza ekologikoaren aipamenak aldatu edota produktuak inportatu edota merkaturatzen dituzten enpresek ordaindu beharko dute.

Lehengai gehiena erosi beharra dagoenean, hau da, aktibitate nagusia elaborazioa denean eta ez ekoizpena, urteko tarifaren zenbatekoa, jarduera motaren arabera **zati finkoa** eta ekologikoan egindako fakturazio kopuruan oinarritutako **zati aldakorren** batuketa da.

Lehengai gehiena, ekologikoa edo bestelakoa, **norberak ekoiztua** denean, **ez da zati aldakorrik ordaintzen**. Ekoizle-elaboratzailea izanik, suposatzen da aurretiz ordainduta dutela kontrol gastuen zati bat (ekoizleentzat kontrol kostua: ekoizpen jarduera + elaborazioa –zati finkoa-)

1. Zati finkoa

Bi jarduera mota planteatzen dira eragileentzat:

- Jarduera mistoa (ekologikoa eta ez ekologikoa)**, hau da, ekologikoan erregistratutakoaren berdina den ekoizpeneko beste **linea ez ekologiko** bat edukitzea.
- Jarduera ekologikoa soilik**. Baldintza honetan, ekoizpen prozesurako lehengaiak aurretik ENEEKek kontrolatu dituen ala ez kontutan hartzen da.

ERAGILE MOTA	Urteko zati finkoa
a) Ekologikoan ziurtatutako orientazio edo ekoizpen linea mota berdina edukitzea konbentzionalean	300 €
b) Jarduera, ekologikoan bakarrik garatzen da eta lehengai garrantzitsuenaren gehiengo kantitatea:	
b1) Aurrez ENEEKek kontrolatu duen eragile ekologiko batek hornitu du	100 €
b2) ENEEKek kontrola ezin duen beste ekoizpen eremuetako eragile batek hornitu du	150 €

2. Zati aldakorra

Nekazaritza Ekologikoan erregistratutako jardueren urteko **fakturazioaren** arabera da. Produktu ekologikoen salmenta zein bitartekari bezala egindako zerbitzuen fakturazioa (hiltegia, zatiketako gela, jaki lantegiak etab.) hartu behar dira kontutan.

Urteko eko fakturazioa (BEZ sartu gabe)	fakturazioaren %
lehenengo 60.000 €	% 0,4 (1/250)
60.000 €-tik aurrerakoak	% 0,2 (1/500)

4. INPORTAZIOEN ETA MERKATARITZAREN KONTROLA

Hirugarren herrialde batetik (EEE-tik kanpo) produktu edo lehengai ekologikoak inportatzen dituzten enpresek eta merkataritzan ari diren pertsona eta enpresek ordaindu beharko dute.

Merkatarien kasuan soilik norberak ekoiztuak ez diren produktu ekologikoak mordoka merkaturatzen dituzten salmenta toki eta bitartekari banatzaile enpresek.

Kanpoan geldituko dira produktua ontziratuta eta salmentarako behin behineko eran jasotzen duten salmenta toki eta bitartekari banatzaileak. Ez dute ENEEkeko erregistroan altan emanda egon beharko eta beraz ez dute ezer ordainduko.

Kontrol hauegatik ordaindu beharrekoa oraindik zehaztu gabe dago, beraz, 2009. urtean ez da tarifarik ezarriko.